



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

***EL FANTASMA DE LA ÓPERA* musikal arrakastatsua udako eta Aste Nagusiko plater nagusia izango da Arriaga Antzokian**

- Arriaga Antzokiak 38 emanaldi eskainiko ditu abuztuaren 14tik — estreinaldiaren egunetik— irailaren 15era arte, eta sarrerak bihar jarriko dira salgai, ostegunean, maiatzaren 9an, 11:30ean.

Bilbo, 2024ko maiatzaren 8a.- Arriaga Antzokiak ikuskizun musikal handi bat eskainiko du berriro ere uda honetan. Abuztuaren 14tik —asteazkenetik— irailaren 15era —igandera— *El fantasma de la Ópera* izango dugu Bilbon, Madrilen musikalen denboraldi honetako erreferente bihurtu den maitasun istorio handia. Ikuskizun hau, zeinak **Andrew Lloyd Webber**ren musika ahaztezina baitu, lau astez egongo da Arriagako programazioan, Aste Nagusia barne. Horrela, 2023ko irailean Madrilen estreinatu zenetik, musikal klasikoaren bertsio txalotu honek bisitatzen duen lehen hiria izango da Bilbo.

El fantasma de la Ópera obrak artista talde bikaina biltzen du. **Federico Belloner**en zuzendaritza eszenikoa eta **Julio Awad**en zuzendaritza musikala ditu, eta, 1986an Londresko West End-ean estreinatu zenetik, 41 lurraldetako 160 milioi ikusleren aurrean antzeztu den ekoizpenaren lekukoa jasotzen du.

Musikal arrakastatsuen

1986an Londresen inauguratu zenetik, *El fantasma de la Ópera* ikuskizunak 160 milioi pertsonatik gora liluratu ditu 193 hiritan eta 19 hizkuntzatan. Horrez gain, 70 antzerki-saririk gora jaso ditu, tartean 7 Tony sari eta 4 Olivier Awards sari. Inoiz egin den musikalik arrakastatsuen da eta Broadwayko show urtetsuen izatearen marka du. 2004an, Joel Schumacher zuzendariak zinemarako egokitu zuen, eta Gerard Butler eta Emmy Rossum aktoreak izan ziren filmaren protagonistak. Espainian, bi Talía Sari eskuratu ditu, eta horiez gain, Antzerki Musikalaren Sarien hurrengo ediziorako musikal gogokoena izateko 12 izendapen ditu. Ekainaren 10ean banatuko dira sariak.

Sinopsia

Murgil zaitetz obsesio-espinal batean *El fantasma de la Ópera*ren bidez. Ezagutu maitasuna, heriotza eta hondamendia uztartzen dituen istorio zirrargarria, zeina antzerki baten errailetan mundutik ezkatututa bizi den musikaren jenio baten eta Christine izeneko ahots zerutierra duen neska gazte baten artean gertatzen baita; azkenak laster izango du maskararen azpian ezkatutzen den izuaren berri. Gai izango al da Mamuaren sorginkeriarri aurre egiteko, edo haren mundu ilun eta erokeriaz betera eramango du?

Sarrerak bihar jarriko dira salgai, ostegunean, maiatzaren 9an

Sarrerak bihar jarriko dira salgai, maiatzaren 9an, ostegunean, goizeko 11:30ean, ohiko bideetan: www.teatroarriaga.eus helbidean eta antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegietan. Musikalerako ezarritako prezioak 30 eurotik 69 eurora bitartekoak dira, egunen arabera aukera desberdinekin eta deskontuekin.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus

ARRIAGA ANTZOKIA - Emanaldien egutegia

ABUZTUA

ASTEAZKENA	14	19:30	ESTREINALDI OFIZIALA
OSTEGUNA	15	19:30	
OSTIRALA	16	17:30 eta 21:30	
IGANDEA	18	17:00 eta 21:00	
ASTEARTEA	20	19:30	
ASTEAZKENA	21	19:30	
OSTEGUNA	22	19:30	
OSTIRALA	23	17:30 eta 21:15	
LARUNBATA	24	17:30 eta 21:15	
IGANDEA	25	17:00	
ASTEARTEA	27	19:30	
ASTEAZKENA	28	19:30	
OSTEGUNA	29	19:30	
OSTIRALA	30	17:30 eta 21:30	
LARUNBATA	31	17:30 eta 21:30	

IRAILA

IGANDEA	1	17:00	
ASTEARTEA	3	19:30	
ASTEAZKENA	4	19:30	
OSTEGUNA	5	19:30	
OSTIRALA	6	17:30 eta 21:30	
LARUNBATA	7	17:30 eta 21:30	
IGANDEA	8	17:00	
ASTEARTEA	10	19:30	
ASTEAZKENA	11	19:30	
OSTEGUNA	12	19:30	
OSTIRALA	13	17:30 eta 21:30	
LARUNBATA	14	17:30 eta 21:30	
IGANDEA	15	17:00	